



AURRERA

AMAITU dira Oñati'n, «Euskalerriarri dagozkion ikastien batzarrak» aurten izan dituen billaldiak.

Bai, billaldiak amaitu dira. Ez ordia lanak. Abek asi besterik ez dira egin.

Ezer tajutuko bada, geruago ta gogotsuago jarraitu biar diogu lanari, geruago ta bikañago, geruago ta sutsuago.

Astia ondo da, baña ez da aski. Asierako azaldu dan asmo zintzoan iraun biar degu batere lasaitu gabe.

Gauzak ez dira batetan egiten. Batetan sortzen diranak, batetan amaitu ere egiten dira. Iraunkorra nai bada, lanian ere iraun biar da batere aspertu gabe.

Euskalerraren alde dauzkagun asmo zintzoak iraunkorrak izan biar dute. Gure lur maitearen sendotasuna, aurrerapena, beti betiko nai ditugu; beaz gure lanak ere era berian izan biar dute.

Asmo ederrak, iritzi zuzenak azaldu dira Oñati'ko batzarrean. Euskalerrian badauzkagu, Jainkoari eskerrak, gizon jakintsuak, euskeldun zintzoak. Maisuak azkarrak eta ugari bildu dira batzar oroimengarri artan. Poztu gaiten beragaz. Asteko biar biarrak dira jaun argidotar trebiak.

Gogotsu entzun ditugu jaun oyen irakaspen sentsudunak, chaluak ugari laketu dizkategu, ta beren izenak goituaz, pozez beterik echera biurtu gera.

¿Orrenbesterekin amaitu degu? Ez, ori ez. Orrela izatekotan esan genezake batere keskik gabe: Oñati'ko batzarra utsaren ondorengo izan dala.

¿Ez du noski euskeldun jatorra danak orrelakorik entzun naiko? Ez biar beintzat. Bada orrela izango ez bada lanari ekin biar diogu. Oñati'n entzun ditugun irakaspenak gure aldetik, guri dagokigun era guzietan zabaldu ditezten.

Erakuslariak tajuz eta trebe aitu dira Oñati'ko batzar ospetsuan. Orain gure chanda da. Ikusi dezagun ikasliak, guri dagozkigun egipenetan tajuz ta trebe ari ote geran.

Gogozkua da, chit gogozkua, erakuslien irakaskuntza jakintsuak entzutia. Beren agindu zintzoak egitia ere gogo gogozkua izan biar da. Euskalerrria bene benetan maite badegu ala izan biar beintzat.

Oso atsegintsu arkitzen gera gure euskerari dagozkion ikaspenak entzuten ditugunian. Nola idatzi ta nola itsegin biar dan euskeraz jakitia atsegiñez ikasten degu. Itz zar jatorrak edo itz berri ongi asmatuak gogo biziz jasotzen ditugu.

Bañan ondoren gure chanda dator. Euskeraz itz egiteko agintzen digute. ¿Ta orduban zer diogu?

Ez daukagu onenian lengo zale biziya. Ez da ori euskeldun jatorra izatia.

Euskeldun jatorra danak ez du ainbeste poztu biar euskeraren edertasunak aditzen dituenian, nola euskera bera ari danian.

Ontan sayatu biar degu: euskeraz itz egiten.

Gañerakuak gañera dirala, gure eginkizunik biarrena euskeraz itz egitia da.

Utzi dezayogun alde batera itz berriak sortseari. Ortarako badakazkigu jaun trebe ta argidotarrak. Gure eginkizuna, len esan degun bezela, euskeraz itz egitian dago.

Ala erabaki dute Oñati'ko billera gogoangarrian eta ala izan biar du euskeldun jatorraz gure buruak badakazkigu.

Euskeraz itz egin. Orra oraingo gure lan biarren biarrena. Euskera-gaz erderaz itz egitia ez, ori alperrikako lana da geyenian. Euskeraz itz egitiak goituko du gure izkera ta izkerakin batian goituko da ere gure lur maitearen izaera.

Eleizalde'tar jaun argidotarrak zion bezela, oraingo euskeldunen eginkizun biarrena euskeraz itz egitia da. Ongi edo gaizki, dan bezela dala, baña euskeraz.

Ez noski beti gaizki itz egiten jarraitzeko asmoan, bañan asiye-rakoan beintzat al dan bezela. Gero, beti obetuago egiteko asmoan, egunetik egunera zerbait tajutuaz; gaur piška bat, bigar zerbait geya-

go, azkenian jator, chukun eta apain euskeraz itz egiten jarri arteraño.

Bañan orretara irišteko asi egin biar da, ta gauza jakiña da asieratik ezin egingo ditugula gauz arrigarriak.

Eta onechek berak askotan atzerapena ekartzen digu. Lenen lenen-gotik ezin maisu izanak. Beti goyetan ibilli nai. Gora irišteko ordia betik asi biar degu, ta aldapa gora poliki poliki igo ere, ongi goyetara irichi nai bagera.

Ez diote euskeldun askok biar bezela begirutzen, edo ez dute beintzat ezagutzen zeñen biarra dan euskeraz itz egitia.

Geyenaz aitortuko dute beren erdal sayoetan, euskeraz itz egin biar dala, baña euskeraz..... bestiak.

Ez da ori tajuzkua. Euskeraz itz egite ori nor bere gandik asi biar da. Orrengatik ez dute esan biar euskeraz itz egin biar da, baizik euskeraz itz egin biar det.

Euskalerrria beren begiko niniya baño maiteago dutela uste duten askok, ezagutzen dute maitetasun au euskeraren zaletasunian azaldu biar dala, baña beste aldetik zaletasun au osatzen dutela uste dute euskeragaz erderaz sutsu itz egiñarekin.

Ez dute orrelakorik aitatzen Oñati'ko batzarreak erabaki dituen aipenak. Ez diote an ezer euskeraren aldeko lan erderagaz. An euskeraz itz egiteko agintzen dute argi ta garbi.

Ta ori lenengo *mandamentuan*, lenengo agintean.

Ala izan ere biar du euskeldun egiazkoentzat. Lenengo *mandamentua*: euskeraz itz egitia izan biar da.

Orrela da Oñati'ko batzarraren lenengo agindua: euskeldun garbiak diranak euskeraz al-guziyan itz egin biar dutela. Beren echietan, beren aidiakin, adizkidiakin al-guziyakin. Euskeldun españetan euskerak ibilli biar duela. Ibilli biar duen bezela.

Gauz abek ez lirake esan biar ere, nor berak badakizki ta iñork esan gabe egin biar lirake. Bañan, zorigaitzoz, erreš aztutzen ditugu ta gugaz nagusitzen da erderaren aldeko griña kaltegarriya.

Oñati'ko batzarra zerbaitetarako izan bada, gure euskeltasuna sendotu ta pizkortzeko izan da, ta len bañore sutsuago euskeraren alde jarraitzeko.

Euskalerrriaren ganako zale biziya, euskera ganako goguan ezagutzen da. Ta euskera ganako gogua euskeraz itz egiten.

Lengo euskeldun zarrak etzuten euskelduntzat ezagutzen euskeraz itz egiten etzekiyenik. Euskalerrriaren biyotzian, euskeldun gurasoz jayua izan arren, *kastellanua* deitzen zioten.

Zenbait aldiz entzun izan degu: oroko ori euskelduna da, baña... *kastellanua*.

Etzuten ezagutzen euskeldun jatortzat euskeraz etzekiyenik, eta ez eta ere Euskalerriko seme jatortzat euskaldun jatorra etzanik, euskeraz itz egiten etzubenik.

Ala izan ere biar luke. Ez da prantzesik prantzesez ez dakiyenik, ain guchi ingelez ingelesez ez dakiyenik, eta orrela beste erridietako semiak. Euskeldunak bakarrik, Euskalerriko semiak dira, zorigaitzoz, beren izkuntza maitekorra ez dakitenak.

Lotsagarriya da gertaera samin ta minkoitz ori.

Euskalerrria sendotu ta goratu nai badegu bada, ortik asi biar degu: Euskalerriko semiak euskeldun jatorrak egiñaz; guzi guziyak euskera atsegiña itz egiñaz.

Amaitu biar da bein ta betiko *euskeldun-kastellano* izate ori. Euskal odola bere zaiñetan dabillenak, euskeltasuna mingañian azaldu biar du, euskeraz itz egiñaz. Orduban jakingo da biyotzaren barrenian daukala Euskalerrriaren ganako lei bizi ta sutsua.

Ekin dezayogun bada biziro, Oñati'ko batzar gogoangarriak zerbaite tarako izan biar badu, euskal lur maitia jaso nai badegu goyeneko malletaraño.

Lenengo, lenengoak izan biar du. Ta lenengua guretzat euskeraz itz egitia da. Euskeraz itz egiten badegu euskal aldekuak izango dira gure asmuak ere, ta bide orretatik sendotuko degu gure Euskalerrri maitia.

Eraso dezayogun bada gogo biziz, eta euskal lur maitiaren alderdi guzietan ez ditezela entzun gure euskera laztanaren itz estitsu ta šamur rak baizik.

Euskeraz gure aur zoragarriai, euskeraz gure sendi, aide guziai, euskeraz gure ezagun guziai. Euskera, beti euskera, ta Euskalerrriko batzar guzietan euskera bakari bakarrik.

M. ARRONIZ

